

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

### ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

**8/2023 Foru Araua, martxoaren 8koa, 2/2023 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, otsailaren 14koa, baliozkotzeko dena, zeinaren bidez onesten da Arabako zerga araudira egokitzeari Balio Erantsiaren gaineko Zergan, Zerga Berezetan, Energia Elektriakoaren Ekoizpen Balioaren gaineko Zergan eta berandutze interesean egin diren hainbat aldaketa**

Arabako Batzar Nagusiek, 2023ko martxoaren 8an egindako osoko bilkuran ondoko foru araua onetsi dute:

8/2023 Foru Araua, martxoaren 8koa, 2/2023 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, otsailaren 14koa, baliozkotzeko dena, zeinaren bidez onesten da Arabako zerga araudira egokitzeari Balio Erantsiaren gaineko Zergan, Zerga Berezetan, Energia Elektriakoaren Ekoizpen Balioaren gaineko Zergan eta berandutze interesean egin diren hainbat aldaketa.

#### HITZAURREA

Otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauak Arabako Zerga Orokorrari buruzkoa 8. artikuluan baimendutakoarekin bat etorriz, Foru Gobernu Kontseiluak onartu du, presazko arrazoiak direla-eta, otsailaren 14ko 2/2023 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, zeinaren bidez onesten da Arabako zerga araudira egokitzeari Balio Erantsiaren gaineko Zergan, Zerga Berezetan, Energia Elektriakoaren Ekoizpen Balioaren gaineko Zergan eta berandutze interesean egin diren hainbat aldaketa.

Aipaturiko 8. artikulua 2. apartatuan ezartzen du, xedapen orokor horiek Batzar Nagusiek baliozkotu edo indargabetu behar dutela indarrean dauden arauen arabera.

Tramite hori eginda, Batzar Nagusietako osoko bilkurak baliozkotze akordioa hartuta eta 2013ko apirilaren 22ko Arabako Batzar Nagusietako funtzionamendu araudia aldatzeko 17/2013 Foru Arauaren 147. artikulua arabera, bidezkoa da aipatutako zerga premiazko araugintzako dekretua baliozkotzeko foru araua ematea.

Artikulu bakarra. Baliozkotuta geratu da otsailaren 14ko 2/2023 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, zeinaren bidez onesten da Arabako zerga araudira egokitzeari balio erantsiaren gaineko zergan, zerga berezetan, energia elektriakoaren ekoizpen balioaren gaineko zergan eta berandutze interesean egin diren hainbat aldaketa.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko martxoaren 8a

*Presidentea*

**PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA**